



**Ebazpena, 2018ko apirilaren 20koa, Hezkuntza Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearena. Ebazpen honen bidez 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko egin zen deialdia behin betikoz esleitzen da.**

Hezkuntza Saileko sailburuaren 2017ko abenduaren 28ko Aginduaren bidez, 2017-2018 ikasturteko Haur Hezkuntza (2. zikloa), Lehen Hezkuntza eta DBH (1. eta 2. zikloak) egiten ari diren ikasleen garraiorako banan-banako diru-laguntzak eskuratzeko deialdia egin zen. (2017ko abenduaren 28ko EHAA).

Hezkuntza Saileko, 2018ko martxoaren 12ko sailburuordearen Ebazpenaren bidez ebatzi zen aipatu den deialdia, behin-behineko izaeraz, 2017ko martxoaren 16an argitaratu zen "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoa, eta alegazioak aurkezteko epea ezarri zen.

Aurkeztutako alegazioak ebatzi ondoren.

Honako deialdi hau arautzen duen Aginduaren 8. artikulua araberan,

**EBAZTEN DUT:**

Lehenengoa: deialdian araututako baldintzak betetzen dituzten ikasleen diru-laguntzak esleitzea.

Esleitzea 732.424,37 euro, ondoren datorren moduan:

ARABAKO Lurralde Historikoa	316.871,41
GIPUZKOAKO Lurralde Historikoa	215.012,52
BIZKAIKO Lurralde Historikoa	200.540,44

Bigarrena: deialdiaren behin betiko esleipen hau eta onartuak izan diren eta izan ez diren eskabideen zerrendak argitara ematea "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoa, interesdunak jakinaren gainean egon daitezen.

Hirugarrena: behin betiko ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahalko zaio Hezkuntza sailburuari hilabeteko epean, "euskadi.eus" Web-guneko iragarki taula elektronikoa ebazpen honen berri ematen den hurrengo egunetik kontatuta.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko apirilaren 20a

  
Olatz Garamendi Landa  
Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN